



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ESP.KODEA 2023SUBV0007 COD.EXP.	
EXPEDIENTEA EXPEDIENTE	DIRU-LAGUNTZA
TITULARRA TITULAR	ASOCIACION ESPAÑOLA CONTRA EL CANCER
NAN DNI	G28197564

**AZKOITIKO UDALAREN ETA ASOCIACIÓN ESPAÑOLA CONTRA EL
CANCER – GIPUZKOA ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA**

BILDU DIRA

Alde batetik, Janire Igoa Merino, Azkoitiako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia eta P-2001800-H I.F.K. zenbakia duen Azkoitiko Udalaren izenean.

Bestetik, Maria Luisa Arriola Nieto (NAN 13750251-T), IFK G28197564 duen Asociación Española Contra el Cancer - Gipuzkoa erakundearen izenean eta haren ordezkaritzan, helbidea Bartzelona etorbidea, 6, 20014 Donostia (Gipuzkoa) duena.

Bi alderdiek elkarri aitortu diote hitzarmen hau izenpetzeko gaitasun osoa dutela, eta Asociación Española Contra el Cancer - Gipuzkoa eta bere ordezkariaren kasuan, Administrazio Publikoarekin hitzarmenak izenpetzeko inolako bateraezintasun edo ezgaitasun arrazoietan sartuta ez daudela adierazi ondoren, agertutakoek honako hau

ADIERAZI DUTE

I.- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 22.2 artikuluan xedatzen du Toki Administrazioako aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendunak zuzenean eman ahalko direla, betiere, diru-laguntza arautzen duen hitzarmenean eta diru-laguntzak arautzen dituen araudian jasotako baldintzetan.

Lege bereko 28. artikulua diru-laguntzak zuzenean emateko prozedura arautzen du, zehaztuz, hitzarmenak direla Toki Administrazioek aurreikusitako diru-laguntza izendunak bideratzeko ohiko tresnak. Hitzarmenek, legean xedatutakoa betez, aplikagarriak diren baldintzak eta konpromisoak jasoko dituzte.

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko 65. artikulua arabera aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendunak izango dira, xedea, aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna aurrekontuaren gastuen egoera-orrian berariaz zehaztuta dituztenak. Gainera, diru-laguntza horiek emateko prozedura ofizioz hasi daiteke edo eskatuta eta diru-laguntza arautzeko oinarri izaera izango duen hitzarmenarekin amaituko da.

II.- Asociación Española Contra el Cancer - Gipuzkoa irabazteko asmorik gabeko elkarte da, Urola Kostan delegazio berria dago Azpeitian eta Gipuzkoan hainbat delegazio daude. Espainiako erregistroan 1 sekzioko 3.827 zenbakiarekin erregistratuta dago.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

III.- Gipuzkoako delegazioko lehendakaria da Maria Luisa Arriola Nieto andrea, N.A.N. zenbakia 13750251-T duena, urtean zehar Gipuzkoan, Urola Kostan eta Azkoitian egiten diren ekintzen ordezkaria.

IV.- Lankidetzaz hitzarmen hau egiteko orduan, kontuan hartu dira Urola Kostako delegazioak azkoitiarrak ere artatzen dituela. Dagoeneko elkarteak 217 azkoitiar ditu bazkide eta 3 boluntario. Hori horrela, egiaztatuta dago elkarteak jendartean duen eragina, zenbat azkoitiarrak parte hartzen duten taldean, elkartearen finkatze maila, ematen den zerbitzua, izandako ibilbidea, jarraitasuna eta egonkortasuna.

V.- Diru-laguntza hau ematen da interes publiko eta sozialeko helburuak betetzeko. Zehazki, 2023. Urteko ekintzak aurrera eramateko, eta bereziki Azpeitiko delegazioan eta bailaran, honako zerbitzuak edo ekintzak antolatuko dituzte:

- Arreta soziala
- Material ortopedikoa.
- Arreta psikologikoa.
- Arreta telefonikoa 24 ordu: 943457722 eta 900100036
- Minbiziaren Aurkako hamabostaldia Urola Kostan: besteak beste, Azkoitian hitzaldia edo lantegia emango da.
- Informazio eta prebentzio kanpainak Azkoitian.
- Gabonetako loteria.

VI.- Hitzarmen hau sinatzen da Azkoitiko Udalaren eskumenen egikaritzan, hain zuzen, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.13 artikulua xedatutakoaren arabera.

VII.- Hitzarmen honen helburua Azkoitiko Udaleko aurrekontuan (indarrean dagoena) aurreikusitako diru-laguntza erakunde onuradunaren alde bideratzea da eta erakunde onuradunak bere gain hartuko dituen baldintzak nahiz konpromisoak finkatzea.

Beraz, diru-laguntzen Lege Orokorrean eta aplikagarria den gainerako araudian ezarritakoa betez, bi aldeek hitzarmen hau izenpetzeko erabakia hartu dute, ondorengo baldintza edo xedapenen arabera:

XEDAPENAK

LEHENA: Hitzarmen honen xedea da Azkoitiko Udalak 2023. ekitaldiko aurrekontuan aurreikusitako diru-laguntza Asociación Española Contra el Cancer - Gipuzkoari ematea eta emate horren baldintzak arautzea, Asociación Española Contra el Cancer - Gipuzkoak aurkeztu duen programa/proiektua aurrera eraman dezan: 2023. urteko ekintzak aurrera eramateko hain zuzen ere. Ondorioz, aipatutako programa/proiektuak sortutako gastuei aurre egiteko bakarrik erabili daiteke diru-laguntza.

BIGARRENA: Azkoitiko Udalak, Asociación Española Contra el Cancer - Gipuzkoari MILA ETA BOSTEHUN EUROKO (1.500 euro) diru-laguntza emango dio programa/proiektuan aurreikusitako ekintzetarako, 2023ko udal aurrekontuko partida honetatik: 4000.481.230.00.15 diru-laguntza hau, ordainketa batean emango da, hitzarmena sinatu ostean. Horretarako, Asociación Española Contra el Cancer - Gipuzkoak dokumentazioa hau aurkeztuta izan behar du:



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- 2023ko programa eta jardueren proiektua.
- 2023ko gastuen eta sarreraren aurrekontu zehaztua.
- Gainerako finantza iturriei buruzko zehaztapen idatzia edota beste finantza iturririk ez duen ziurtagiria.
- Aurkeztutako programa/jardueren proiektuaren arabera, Asociación Española Contra el Cancer - Gipuzkoa elkarteak honako ekintzak antolatu/aurrera eramango ditu: Zehazki, 2023. Urteko ekintzak aurrera eramateko, eta bereziki Azpeitiko delegazioan eta bailaran, honako zerbitzuak edo ekintzak antolatuko dituzte:
 - Arreta soziala.
 - Material ortopedikoa.
 - Arreta psikologikoa.
 - Arreta telefonikoa 24 ordu: 943457722 eta 900100036
 - Minbiziaren Aurkako hamabostaldia Urola Kostan: besteak beste, Azkoitian hitzaldia edo lantegia emango da.
 - Informazio eta prebentzio kanpainak Azkoitian.
 - Gabonetako loteria.

HIRUGARRENA: Aurkeztu den programa/proiektuaren baitan egiten diren ekitaldi guztietan adierazi beharko da Azkoitiko Udalak diruz lagundu duela. Era berean, argitaratu daitezkeen publizitateetan, agerian utzi beharko da Azkoitiko Udalak laguntza eman duela, "Azkoitiko Udalaren laguntzarekin" esaldia txertatuz Udalaren Logoarekin batera.

- a) Ekitaldi edo jardueraren berri eman beharko zaio Gizarte Ongizate Sailari hilaibete lehenago (eguna, ordutegia, lekua, informazioa...).
- a) Iragarkiak, ohar eta jakinarazpenak, bai ahozkoa eta bai idatzizkoa, ahal den guztietan, euskara hutsean egingo dira. Bi hizkuntzetan egiten badira, lehenetsuna emango zaio euskarari.
- b) Ezingo da sexu edo arraza arrazoiengatik diskriminaziorik egin eta une oro errespetatu beharko da emakume eta gizonezkoen arteko aukera-berdintasun printzipioa.

LAUGARRENA: Diruz laguntzeko gastutzat joko dira diruz lagundutako ekintzaren edo proiektuaren izaerari erantzuteaz gain, diru-laguntzak arautzeko oinarriek ezarritako epean egiten direnak. Gastu bat diruz laguntzeko, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan xedatutakoa bete behar da, baita azpikontratatzeko 29. artikuluan eskatutako baldintzak ere.

4.1.- Diruz lagundu daitezkeen gastu kontzeptuei dagokienez, gastu mota batzuetarako ondorengo mugak ezartzen dira:

4.1.1.- Ez dira onartuko gastuen oharak eta beste dokumentu batzuk, ez badituzte betetzen legezko faktura edo egiaztagiri kontsideratzeko baldintzak.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Salbuespen izaeraz, zerbitzuak edo lanak egiten badituzte, noizbehinka, faktura egiteko egoeran ez dauden pertsona batzuek, baina legez eskatu dakizkien baldintzak beteta, fakturaren ordezkari onartuko da hartzaileak jaso izanaren agiri bat aurkeztea, zeinetan jasoko diren izen-abizenak, nortasun agiria (NA) eta kontzeptua. Onuradunaren gastu guztiak kontuan hartuta, ezin izango dute gainditu diru-laguntzaren %25aren kopurua. Jaso izanaren agiri bakoitzaren zenbatekoa ezingo da izan 800€ baino handiagoa eta zenbatekoa 300€tik gorakoa denean, derrigorrezkoa izango da jasotzailearen banketxe kontuan ordainketa egin izana ziurtatzen duen agiria aurkeztea.

Jaso izanaren agiria sinatu duenari Ogasunak erreklamazioen bat jarriko balioke, ezin izango zaio inolako erantzukizunik eratorri Azkoitiko Udalari; izan ere, Azkoitiko Udalak gastua egin eta ordaindu dela egiaztatu besterik ez du egingo, emandako diru-laguntza justifikatzeko bitarteko gisa.

4.1.2.- Bazkari, afari, hotel edo ostalaritzako zerbitzuen kostuak, kilometraje gastuak, ibilgailuentzako erregai gastuak, telefonia zerbitzuetako gastuak edo antzekoak modu nabarian (eta egoki justifikatuta) aurretik identifikatuak izan behar dira aurkeztutako proiektuan. Edonola ere, behar den proportzionaltasuna gorde beharko dute egindako gastuaren artean eta lortu nahi duten helburuaren artean, zenbatekoa izan gabe entitatearen gastu guztien % 25 baino handiagoa.

4.1.3.- Salbuespen izaeraz, justifikatzen zailak diren gastuak onartuko dira, zeinak ez duen beharko agiriz justifikatzea, eta kasu batean ere ez da izango onuradunaren gastu guztien %10 baino handiagoa.

2023ko abenduaren 31an amaituko da diru-laguntza erabiltzeko edo jarduerak egiteko epea. Aldiz, diru-laguntza emateko helburua bete duela zurrizteko eta jasotako diru-laguntza zertan erabili den justifikatzeko epea 2024ko otsailaren 28an amaituko da.

Justifikatzeko modua KONTU ERRAZTU bidez egingo da eta honako dokumentuak izango ditu:

- a) Justifikazio-kontuaren adierazpena Azkoitiko Udaleko webgunean (www.azkoitia.eus) eskura dagoen ereduaren arabera diruzainak sinatua.
- a) Jarduera memoria bat, diru-laguntza ematerakoan jarritako baldintzak bete egin direla justifikatzen duena eta egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazten dituena.
- b) Jarduerak izan dituen gastuen eta sarreraren zerrenda sailkatua Azkoitiko Udaleko webgunean (www.azkoitia.eus) eskura dagoen ereduaren arabera diruzainak sinatua.
- c) Gastua justifikatzeko balio duten faktura, ordainagiri edo trafiko juridikoan frogatutako balioa duten beste agiriak onuradunak gorde beharko ditu eta Gizarte Ongizate Sailak diru-laguntza egoki aplikatu ote den egiaztatuko du horren gaineko arrazoizko ziurtasuna ematen duen ordainagirien lagin bat begiratuta. Hautaketa ausazkoa izango da eta onuraduna behartuta egongo da hautatu diren agiri original horiek aurkeztera.

ESKU145db3a0-de25-4906-b6ba-9b5d1f2122f5



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Justifikatzeko obligazioa ez betetzeak nahiz behar bezala ez justifikatzeak jasotako kopuruak eta dagozkien interesak itzuli beharra ekar lezakete berekin, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

BOSGARRENA: Diru-laguntza hau jaso ahal izateko aurreko ekitaldiko diru-laguntza zurituta izan behar du. Likidazioan ezingo da superabita eduki eta horrela suertatu ezkerro, gehienez jasotako kopurua itzuliko dio Azkoitiko Udalari.

SEIGARRENA: Udalaren laguntza bateragarria izango da gainerako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako diru-laguntzekin, eta Asociación Española Contra el Cancer - Gipuzkoa gainontzeko sarrerekin, beti ere udalari informatuta. Edonola ere, ezingo da gain-finantzaketarik izan, eta egora hori gertatzen bada, diru-laguntza murriztuko zaio Asociación Española Contra el Cancer - Gipuzkoa elkarteari.

ZAZPIGARRENA: Azkoitiko Udala ez da arduratuko Asociación Española Contra el Cancer - Gipuzkoan lanean ari diren langileez eta Asociación Española Contra el Cancer - Gipuzkoa izango da langileekiko lan-harremanaren ondorioz sortutako lege alorreko betebeharren erantzule bakarra. Lan alorreko legeri babesleak bere alderdi guztietan ezarritakoa bete behar du Asociación Española Contra el Cancer - Gipuzkoa.

ZORTZIGARRENA: Hitzarmen hau izenpetzean, sinatzen duenak adierazten du bertan ezarritako betekizun guztiak betetzen dituela eta hemen jasotako baldintza eta betebeharrak guztiak onartzen dituela.

Era berean, izenpetzen duenak adierazten du Azkoitiko Udalari eman dizkion Datu Pertsonalak onepenez eman dizkiola eta datu horiek Azkoitiko Udalak baimendutako fitxategian sartzeko eta tratamendu automatizatua emateari baietza ematen diola.

Gainera, sinatzen duenak aitortzen du hitzarmen hau izenpetzeko eman duen informazioa egiazkoa dela eta ez duela isilean ezer gorde edo aldatu.

Hitzarmena sinatzen duenak baimena ematen dio Azkoitiko Udalari:

Izaera pertsonaleko datu horiek udala kudeaketarako bakarrik erabiltzeko.

Hitzarmen honen xede den diru-laguntza zuzen kudeatzeko garrantzizko den informazio guztia eskuratu ahal izateko beste Administrazio Publiko batzuen fitxategietan beharrezkoak diren kontsulta guztiak egiteko.

Hitzarmen hau izenpetzen duenak aitortzen du argibide guztiak eman zaizkiola berak eman dituen datuak izaera pertsonaleko datuen eta babes digitaleko 3/2018 lege organikoak ezarritako moduan eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeak aukeraren inguruan.

ESKU145db3a0-de25-4906-b6ba-9b5d1f2122f5



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

BEDERATZIGARRENA: Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, betetzekoak izango dira Estatuak diru-laguntzetarako 2003ko azaroan 17an eman zuen 38/2003 Lege Orokorra, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Diru-laguntzei buruzko Erregelamendu Orokorra eta kasuari aplikagarria den gainontzeko araudia.

HAMARGARRENA: Administrazioko auzitegiatarako jurisdikzioaren menpe geratuko dira hitzarmen honetatik sortzen diren auziak. Nolanahi ere, bitartekaritza edo arbitrajez konpondu daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakoarekin bat etorritz.

Hitzarmen honetako klausulak ez betetzea haren deuseztapena ekar lezake eta elkarteak diru-laguntza kontura jasotakoa itzultzea behartuta egongo da, laugarren klausulan zehaztutako eran.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, bi aldeek hirukoiztuta sinatzen dute.

Janire Igoa Merino
Gizarte Ongizate Saileko
Zinegotzi Delegatua

Maria Luisa Arriola Nieto
Asociacion Española Contra el Cancer
Gipuzkoa-Lehendakaria

GIZARTE ONGIZATE SAILA – Tel . 943 857174 / Fax. 943 852140 – gizar@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU145db3a0-de25-4906-b6ba-9b5d1f2122f5**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>**